



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**2023/2024ko EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN IKASTAROAREN PROGRAMA**

---

**HASIERAKO MAILA**







# AURKIBIDEA

---

- 1 HELBURUAK .....03
- 2 IKASGAI-ZERRENDA..... 07
- 3 IRTEERAK.....16
- 4 KURTSOAREN  
PROGRAMAZIOA..... 23
- 5 EBALUAZIOA.....27
- 6 BIBLIOGRAFIA  
..... 29



# 1 HELBURUAK

---

Ikastaro honen helburu nagusia ikasleei euskararen oinarrizko ezagutzak ematea eta euskal kultura ezagutu eta bizitzea da. Hizkuntzari dagokionez, gaitasunetan oinarritutako helburu orokorrak ezarri dira, Hizkuntzen Europako Portfolioko (HEP) gidak kontuan hartuta:


Eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertu eta erabiltzea, eta berehalako beharrak asetzerantz bideratutako esaldi soilak osatzea.

Bere buruaren eta besteen aurkezpenak egiten jakitea, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazioa eskatzea eta ematea.

Oinarrizko harremanak izateko gaitasuna edukitzea, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

Helburu orokor hauetatik abiatuta, unitate didaktiko bakoitzean gaiarekin erlazionatutako helburu espezifiko ezberdinak ere ezarri dira.

---





# 1.1 HELBURU OROKORRAK

ESPARRUA	ARLOA	HELBURU OROKORRAK
ULERTU	ENTZUMENA	<p>1.1 Hitz arruntak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko gai izatea, lasai eta argi hitz egiten badute, ondorengo gaiei buruz:</p> <p>1.1.1 Familia, lagunak... (pertsonek)</p> <p>1.1.2 Norbera</p> <p>1.1.3 Ingurua</p> <p>1.1.4 (Beste batzuk)</p>
	IRAKURMENA	<p>1.2 Hitz eta izen oso arruntak eta baita esaldi oso errazak ulertzeko gai izatea. Adibidez:</p> <p>1.2.1 Karteletan</p> <p>1.2.2 Idazkuntan</p> <p>1.2.3 Katalogoetan</p> <p>1.2.4 (Beste batzuk)</p>
HITZ EGIN	ELKARRIZKETA	<p>2.1 Elkarrizketetan modu xumean aritzeko gai izatea solaskidearen laguntzaz, hau esandakoa errepikatzen edo beste modu batean esateko, astiro jarduteko eta adierazi nahi dena esaten laguntzeko prest badago.</p> <p>2.2 Galdera errazak egin eta erantzuteko gai izatea:</p> <p>2.2.1 Premia dagoenean</p> <p>2.2.2 Oso ohikoak diren kontuetan.</p>
	AHOZKO ADIERAZPENA	<p>2.3 Deskribapenak egiteko gai izatea esaldi eta esapide arruntak erabiliz, ondorengo gaiei buruz:</p> <p>2.3.1 Bizilekua</p> <p>2.3.2 Jende ezaguna</p> <p>2.3.3 Beste batzuk</p>
IDATZI	IDAZMENA	<p>3.1 Postal laburrak idazteko gai izatea, adibidez, zorionak emateko.</p> <p>3.2 Norberaren datu pertsonalak galdetegi batean idazteko gai izatea, adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko sarrera-orrian.</p>

# 1.2 HELBURU ESPEZIFIKOAK

UNITATE DIDAKTIKOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK		
1. UD	1A Agurtzea eta aurkeztea. 1B Nor den eta nongoa den galdetea eta adieraztea. 1C Datu pertsonalak ematea eta eskatzea.		
2. UD	2A Hiri eta herrietako zerbitzu eta hiri-altzariei buruz hitz egitea. 2B Norbaiten edo zerbaiten kokapenari buruzko informazioa eskatzea eta ematea. 2C Lekuak deskribatzea.  4AB Etxea alokatzeko informazioa lortzea eta konparatzea. 4C Etxea janzteko behar ditugun gauzen zerrenda egitea.		
3. UD	3A Zure familia eta lagunak nor diren adieraztea, non eta norekin bizi diren. 3B Besteen deskribapenak ulertzea eta egitea. 3C Informazio pertsonala ematea eta eskatzea.		
4. UD	5A Janariari buruzko gustuak azaltzea. 5B Errezetak egiteko instrukzioak ematea. 5C Osasuntsu jateko aholkuak ematea.  6A Eguneroko erosketak egitea.		

\* Helburu bakoitzaren kodeek (zenbaki eta letra) testu liburuko gaiei egiten diete erreferentzia.

# 1.3 ZEHARKAKO HELBURUAK

---

Hizkuntzarekin zuzenean erlazionatutako helburuez gain, honako zeharkako helburuak ere finkatu dira, kurtsoan eta gai bakoitzean zehar lantzeko:

## ZEHARKAKO HELBURUAK

4.1.1 Euskal kulturaren aspektu ezberdinak ezagutzea.

4.1.2 Euskal kultura zuzenean bizi eta honetan integratzea.

4.2 Ikasleen arteko komunikazioa.

4.3 Interkulturalitatea sustatzea, klasekideen jatorri ezberdinak klasean ezagutuz eta kontuan hartuz.

4.4 Klasekideen artean talde-lana eta kooperazioa sustatzea.

4.5 IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilera eta integrazioa ekintzetan.



## 2 IKASGAI-ZERRENDA

---


Guztira lau unitate didaktiko landuko dira, eta hauetan liburuko hainbat eduki integratu dira, aurrez ezarritako helburuen arabera antolatuta.

Unitate didaktiko bakoitzean helburu orokorrekaz erlazionatuta dauden helburu espezifiko batzuk landuko dira. Helburu espezifiko bakoitzak Arian A1.1 liburuko gai bat erabiliko du abiapuntu lez.

Honela, gai bakoitzerako, eduki teorikoetatik abiatuta eta hauek oinarritzat harturik, eduki praktikoetara zuzendutako jarduerak prestatuko dira. Eduki praktiko hauetako bakoitza helburu orokorrak eta zeharkakoak lantzeko pensatuta dago (hurrengo tauletan helburu orokorren kodeak erabili dira edukiek hauekin duten erlazioa erakusteko).

Irteerak ere unitatearen edukiak lantzeko eta praktikan jartzeko asmoarekin planifikatu dira, eta beraz, hauek ere helburu orokorrekin erlazionatu dira.

---





# 2 IKASGAI-ZERRENDA

1. UD		ELKAR EZAGUTZEN	
HELBURU ESPEZIFIKOAK	1A Agurtzea eta aurkeztea 1B Nor den eta nongoa den galdetzea eta adieraztea. 1C Datu pertsonalak ematea eta eskatzea		
ARLOAK		EDUKI TEORIKOAK	
Hiztegia	Hasierako eta bukaerako agurrak, erantzuteko kortesia formulak. Lanbideak. Pertsonen izen arruntak (gizona, emakumea, mutila, neska, gurasoak, umea, senarra...) Izen-abizenak, helbidea, telefonoa (zenbakiak)...		
Gramatika	Nor/Zer Aditzak: Izan, bizi izan. Galderak: izenoradainak, “ala” juntagailua, “al-” partikula, non eta nongoa. Izena + erakuslea		
Beste batzuk	Alfabetoa eta fonemak (bokalekoak eta kontsonantikoak). Perpausen tonua.		



# 2 IKASGAI-ZERRENDA

1. UD	ELKAR EZAGUTZEN	
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
Entzumena	1A Aurkezpenak: lanean, lagun berriekin, klasean, irratian...	1.1.1
	1B Izen arruntak eta leku-izen bereziak elkarrizketetan.	1.1.1
	1C Datu pertsonalak: udalekuetan, erreklamazioetan...	1.1.2
Irakurmena	1A Aurkezpenak egiteko elkarrizketak.	1.2.4, 2.3.2
	1B Izen arruntak eta leku-izenak testuetan.	1.2.2, 1.2.4, 2.3.2
	1C Datu pertsonalak Ibilgailuen Azterketa Teknikoan.	1.2.4, 3.2
Elkarrizketa	1A Agurrak eta aurkezpen orokorrak klasean.	2.1, 2.2.2, 1.1.2, 4.4
	1B Jaioterriak eman eta ulertu.	2.1, 2.2.2, 1.1.2, 4.3
Ahozko adierazpena	1C Erreklamazioetan datu pertsonalak eman.	2.1, 2.2.1, 1.1.4
	Euskal alfabetoa, fonemak. Aurrez prestatutako aurkezpen pertsonalak egin.	2.3.3, 4.1.1 2.3.2, 3.2
Idazmena	1A Aurkezpenak eta agurrak: erantzunak eman.	3.1
	1B Izen eta leku-izenekin esaldiak osatu.	3.1
	1C Datu pertsonalei buruzko galderak erantzun.	3.2
	Datu pertsonalen fitxak bete.	3.2
IRTEERA	Tradizioak eta gastronomia ezagutzea	1.1, 2.2, 4.1.1, 4.1.2, 4.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Autoebaluazioa 7.saioan. Ebaluazio partziala 16. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	12 ordu	

\*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.



# 2 IKASGAI-ZERRENDA

2. UD	HIRIA, HERRIA, ETXEA		
<b>HELBURU ESPEZIFIKOAK</b>	2A Hiri/herrietako zerbitzu eta hiri-altzariei buruz hitz egitea. 2B Norbait/zerbaiten kokapenari buruzko informazioa eskatu/ematea. 2C Lekuak deskribatzea.  4A+B Etxea alokatzeko informazioa lortzea eta konparatzea. 4C Etxea janzteko behar ditugun gauzen zerrenda egitea.		
ARLOAK	EDUKI TEORIKOAK		
<b>Hiztegia</b>	Hiri eta herrietako lekurik ezagunenak eta leku arruntak. Zerbitzuak eta hiri-altzariak. Kalea, baserria eta errepidea. Adjetiboak.  Etxearen ezaugarriak eta bertako etxetresnak.		
<b>Gramatika</b>	Non (izen arruntak, erakusleak, lekuzko nozioak eta adberbioak) Ba...rik? Instrukzioak. Orduak. Izena eta adjetiboa, eguraldia.  Konparazio perpausak. Aditzak: Behar izan, balio izan, nahi izan, eduki.		
<b>Beste batzuk</b>	Fonologia: Bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.		



# 2 IKASGAI-ZERRENDA

2. UD	HIRIA, HERRIA, ETXEA	
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
	Euskal hirietako toki famatuak. 2A Herri batean dauden zerbitzuak: elkarrizketa.	4.1.1, 1.1.3 1.1.3
Entzumena	2B Lekuzko-nozioak elkarrizketetan: parkean, argazkietan... 2C Telefono elkarrizketa: orduak, deskribapenak, eguraldia. 4A Etxea bilatzen: informazio eske telefonoz.	1.1.3 1.1.3, 1.1.4 1.1.3, 1.1.4
Irakurmena	2A Herriko zerbitzu eta hiri-altzariak karteletan. 2B Errepidean instrukzioak: testu-mezua. 2C Herrialde baten informazio-fitxa. 4B Etxea alokatzen: Iragarkiak.	1.2.1, 1.2.2 1.2.4 1.2.4 1.2.1, 1.2.3
Elkarrizketa	2B Kanean galdezka: hiriko tokei buruzko instrukzioak galdetu eta eman. 2C Hiri edo herri ezberdinak konparatu. 2C Ordua galdetu eta eman. 4B Bikoteka bakoitzaren etxeari buruzko elkarrizketa.	2.1, 2.2.1 2.1, 2.2.2, 2.3.1 2.1, 2.2.1 2.1, 4.4, 2.3.1
Ahozko adierazpena	2A Kanean dauden hiri-altzarien azalpena (irudia deskribatu). 2B Argazki bat deskribatu. 2C Jaioterriaren deskribapena. 4A Etxe baten planoak deskribatu.	2.3.1 2.3.1, 2.3.3 2.3.1, 4.3 2.3.1, 2.3.3
Idazmena	2A Galderazko esaldiak erantzun. 2B Lekuzko nozioekin esaldiak idatzi. 2C Postal bat idatzi. Jaioterriaren deskribapena. 4C Pisukidea lortzeko iragarki bat idatzi (etxea deskribatu).	3.1 3.1 3.1, 4.3 3.1, 4.4, 4.5
IRTEERA	Bisitak museoetara eta tradizioetara.	2.1, 2.2.1, 4.1.1, 4.1.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Ebaluazio partziala 16. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	16 ordu	

\*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.



# 2 IKASGAI-ZERRENDA

3. UD	FAMILIA ETA LAGUNAK		
<b>HELBURU ESPEZIFIKOAK</b>	3A Zure familia eta lagunak nor diren adieraztea, non eta norekin bizi diren. 3B Besteen deskribapenak ulertzea eta egitea. 3C Informazio pertsonala ematea eta eskatzea.		
ARLOAK	EDUKI TEORIKOAK		
<b>Hiztegia</b>	Ahaidetasun-harremanak. Izaera, itxura fisikoa, jarrerak eta aldartea. Egoera zibila. Zenbakiak (10-100)		
<b>Gramatika</b>	Noren (izen arruntak eta izenordainak) + preposizioak. Norekin (izen arruntak eta bereziak). Nork (izen arruntak, izen bereziak eta izenordainak). Nolakoa / nola. Bizi izan aditza, ukan aditza.		
<b>Beste batzuk</b>	Informazio pertsonala eskatzeko galderak.		

# 2 IKASGAI-ZERRENDA

3. UD	FAMILIA ETA LAGUNAK	
EDUKI PRAKTIKOAK		
Entzumena	3A Ahaidetasunak ondorioztatu elkarrizketetik.	1.1.1
	3B Pertsonen identifikazioa deskribapenetik: elkarrizketa, irratia...	1.1.1
	3C Erantzungailuan mezua: pertsonen zaletasunak.	1.1.1, 1.1.4
Irakurmena	3A Familia argazkien deskribapena.	1.2.4, 2.3.2
	3B Amonaren urtebetetzearen ospakizuna.	1.2.4, 2.3.3
	3C Pertsonen informazio pertsonala.	1.2.4, 2.3.2, 3.2
Elkarrizketa	3A Familia bati buruzko elkarrizketa: Nor, non, nongoa...	2.1, 2.2.2, 2.3.2, 4.4
	3B Jarrera eta aldatzei buruzko galdera-erantzunak.	2.1, 2.2.2, 2.3.2, 4.4
Ahozko adierazpena	3C Fitxa pertsonalak konparatu kideetasunak lortzeko.	2.1, 2.2.2, 3.2, 4.4
	3A Zuhaitz genealogiko bat azaldu.	2.3.3, 4.3, 4.4
Idazmena	3B Deskribatu zure klasekidea (izaera eta itxura fisikoa).	2.3.2, 4.3
	3A Bizi izan aditzarekin esaldiak osatu.	3.1
Idazmena	3B Adinak eta pertsonen ezaugarriak esaldietan.	3.1
	3C Bikotekidea bilatzeko web-orrirako fitxa pertsonala sortu.	3.2
IRTEERA	Hirian mugitzea: eraikin turistikoak eta interesguneak.	1.1.4, 1.2.1, 2.1, 2.2.1, 2.3.3, 4.1.1, 4.1.2, 4.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Autoebaluazioa 22. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	12 ordu	

\*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.



# 2 IKASGAI-ZERRENDA

4. UD		ON EGIN!	
<b>HELBURU ESPEZIFIKOAK</b>	5A Janariari buruzko gustuak azaltzea. 5B Errezetak egiteko instrukzioak ematea. 5C Osasuntsu jateko aholkuak ematea.  6A Eguneroko erosketak egitea.		
ARLOAK		EDUKI TEORIKOAK	
<b>Hiztegia</b>	Janariak, otorduak eta jakiak. Janariaren prestaketaren inguruko aditzak, neurriak... Osasuntsu jatearen inguruko hiztegia, aditzak...  Denden izenak, salerosketen inguruko galdera-erantzunak, produktuak.		
<b>Gramatika</b>	Deklinazioa: Nori (izen arruntak, bereziak, erakusleak), nor-nori (gustatu) Aditzak: Nahiago izan, behar da/dira, aditza + nahi izan. Testu antolatzaileak, denborazko perpausak eta maiztasuna. Nominalizazioa: -t(z)ea, -t(z)eko. Kausazkoa.		

# 2 IKASGAI-ZERRENDA

4. UD		ON EGIN!	
<b>EDUKI PRAKTIKOAK</b>			
<b>Entzumena</b>	5A Menuak: Hotelean, unibertsitatean, jatetxean... 5B Errezetak prestatzeko instrukzioak eta neurriak.		1.1.3, 1.1.4, 4.1.1 1.1.4, 4.1.1
	5C Lo egiteko aholkuak: irratsaioa. 6A Betiko dendetan erosketak egiten.		1.1.4 1.1.3, 1.1.4, 4.1.1
<b>Irakurmena</b>	5A Etxera eramateko janaria: telefono-elkarrizketa. 5B Urdailazpiko-kroketen errezeta. 5C Otorduak. 6A Eguneroko erosketetarako elkarrizketak.		1.2.3, 1.2.4 1.2.4, 4.1.1 1.2.3, 1.2.4, 4.1.1 1.2.4
<b>Elkarrizketa</b>	5A Menu bateko platerak konparatu eta zer jan erabaki. 5C Elkarrizketa aholkuak eskatzea eta ematea: jateko, ibilaldi baterako... 6A Dendari eta eroslearen arteko elkarrizketa: janaria erosten.		2.1, 2.2.2, 2.3.3 2.1, 2.2.2 2.1, 2.2.1
<b>Ahozko adierazpena</b>	5A Txoko batean bazkaltzeko menua azaldu. 5B Bakoitzaren herrialdeko errezeta tipiko bat azaldu. 6A Errezeta bat prestatzeko beharrezko erosketak planifikatu.		2.3.3, 4.1.1, 4.4 2.3.3, 4.3 2.3.3, 4.4
<b>Idazmena</b>	5A Txoko batean bazkaltzeko menua prestatu. 5B Bakoitzaren herrialdeko errezeta tipiko bat azaldu. 5C Elikadura osasuntsuaren piramidea deskribatu. 6A Produktu eta denda ezberdinak identifikatu eta erlazionatu.		3.1, 4.1.1, 4.4 3.1, 4.4, 4.5 3.1 3.1, 2.1
<b>IRTEERA</b>	Monumentu, leku historiko eta tipikoen bisita.		1.1.4, 1.2.1, 2.1, 2.2.1, 4.1.1, 4.1.2, 4.2, 4.4, 4.5
<b>EBALUAZIOA</b>	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.		
<b>DENBORA</b>	14 ordu		

\*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.



# 3 IRTEERAK

---

Ikasturtean zehar hilean irteera bat egingo da, campus bakoitzak irteera ezberdinak izango ditu bere probintzian eta guztira lau izango dira. Irteera hauetako bakoitza unitate didaktiko batean integratuta egongo da, eta hauen helburua gai horretan zehar landutako edukiak kalean eta inguru errealean praktikan jartzea izango da, euskal kulturari eta gizarteari buruz zuzenean ikasiz.

Irteera bakoitza klase baten baliokidea izango da: unitateko edukiak lantzeko erabiliko da eta bi orduko iraupena izango du. Bakoitzaren aurretik ordubeteko prestaketa saio bat egingo da eta irteeraren ondorengo klasean, esperientziak amankomunean jartzeko eta ondorioak ateratzeko ordubeteko saioak antolatuko dira hiru kanpusen artean, Skype erabiliz.

\*Irteeretan landuko diren helburuak edukien tauletan daude.

---



# 3 ARABAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

1. *Gasteiz: Gasteizko Abastos plaza eta pintxoak dastatzeko aukera hiriko alde zaharrean.*

**AURRETIK:** Euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

**IRTEERA:** metroa hartu eta, lehenik eta behin, Abastos plazara joan euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu. Osagaiak zeintzuk diren jakiten saiatuko dira. Gasteizen eta Donostian, metroa beharrean, autobusa edo tranbia.

**ONDOREN:** dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoa) euskaraz idaztea.

Lortutako datuak, esperientziaren adibideren bat eta ondorioak Edmodo plataformara igongo dira hauek ikasle guztien eskura egon daitezten.

---

2. *Gasteiz: Santa Mariako Katedralari bisita egin.*

**AURRETIK:** Santa Mariako Katedralaren inguruko informazioa bilatu Interneten, eta horra joateko tranbia edo autobusa hartu.

**IRTEERA:** Gasteizen autobusa hartu eta irakasleak gidatutako bisita egin, katedrala eta ingurukoez gozatuz, xarma eta historia handiko monumentua da.

**ONDOREN:** bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: zerk erakarri nau gehien?; zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; zer espero nuen bisita egin aurretik?; bete dira nire itxaropenak?

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.



# 3 ARABAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

## 3. *Gasteiz: Museo Bibata bisitatu.*

**AURRETIK:** Interneten bilatu Bibat Museoaren buruzko informazioa.

**IRTEERA:** Gasteiztik autobusa edo tranbia hartu eta bertara gerturatu. Bertan dauden obrak ikusi eta aztertu.

**ONDOREN:** Esperientzia ikaskideekin partekatzea ikasitakoa komentatuz.

## 4. *Bisita gidatua Gasteizen*

**AURRETIK:** hiru lekuetako monumentu, museo edo leku tipikoenen gelan ikerketa bat egitea, gainerako gelei aurkezteko (adibidez, museo arkeologikoari buruz).

**IRTEERA:** metro/bus/tranbia hartu eta ikasleek aukeratutako monumentu edo lekuetatik ibilbide bat egin eta bakoitzak duen esanahi arkitektoniko, historiko eta kulturala azaldu.

**ONDOREN:** irakaslearen azalpenak, zalantzak eta galderak, informazioa osatzea.

---

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.

# 3 BIZKAIKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

## 1. Bilbo: Euskal produktu tipikoak ezagutzen Erriberako merkatuan eta pintxoak dastatzen Bilboko Alde Zaharrean

**AURRETIK:** euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

**IRTEERA:** metroa hartu eta, lehenik eta behin, Zazpikaleetako Erriberako merkatura joan euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu. Osagaiak zeintzuk diren jakiten saiatuko dira.

**ONDOREN:** dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoa) euskaraz idaztea.

Lortutako datuak, esperientziaren adibideren bat eta ondorioak Edmodo plataformara igongo dira hauek ikasle guztien eskura egon daitezen.

## 2. Bilbo: Euskal Museoa bisitatzea Zazpikaleetan.

**AURRETIK:** museo honetan zer aurki daitekeen hausnartzea eta testuingurua ulertzeko aurkituko dutenaren inguruko ikerketa txiki bat egitea interneten.

**IRTEERA:** metroa hartu Euskal Museoa bisitatzeko, eta museoko erakusketetako informazio garrantzitsua idatzi (historia, mitologia...)

**ONDOREN:** bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: Zerk erakarri nau gehien?; Zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; Zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; Zer espero nuen bisita egin aurretik?; Bete dira nire itxaropenak?

Skype bidez hiru kanpusak konektatuko dira, eta klase bakoitzak gainerakoei egindakoa azalduko die.

---

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.



# 3 BIZKAIKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

## 3. Bilbo: Artxandako funikularra igo.

**AURRETIK:** Bilbo eta inguruko erakin buruzko informazioa bilatu. Artxanda non dagoen kokatu eta interneten funikularra .

**IRTEERA:** Metroa edo autobusa hartu eta puntu zehatz baten gelditu, Bilboko Udalean. Oinez funikularreraino joan eta igo. Artxandara joan eta gozatu inguru natural paregabeaz. Bilbok eskaintzen dizkigun Euskal parajeez gozatuz.

**ONDOREN:** Ikasitakoa ikasgelan komentatzea, txangoan gehien gustatu zaiena aipatuz.

## 4. Bilbo: Bizkaiko Zubia bisitatu.

**AURRETIK:** Bizkaiko Zubiko web orrian sartu, non dagoen eta zer den ikusteko.

**IRTEERA:** Autobusa edo metroa hartu Bilbotik Portugaleteraino. Ikasleek herriaren giroa gozatu ahal izango dute eta Euskal Herrian zubi honek duen garrantziaz ikusi, euskal kulturaz ikasiz.

**ONDOREN:** Ikasgelan esperientzia partekatzea, euskal kulturari buruz ikasi dutena komentatuz.

---

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.

# 3 GIPUZKOAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

## 1. Donosti: Bretxa azoka eta pintxoak dastatzeko aukera Donostiako Alde Zaharrean

**AURRETIK:** : euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

**IRTEERA:** autobusa edo tranbia hartu eta, lehenik eta behin, Bretxako merkatura joan, euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu. Osagaiak zeintzuk diren jakiten saiatuko dira.

**ONDOREN:** dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoa) euskaraz idaztea.

Lortutako datuak, esperientziaren adibideren bat eta ondorioak Edmodo plataformara igongo dira hauek ikasle guztien eskura egon daitezten.

## 2. Donosti: San Telmo Museoa bisitatzea

**AURRETIK:** museo honetan zer aurki daitekeen hausnartzea eta testuingurua ulertzeko aurkituko dutenaren inguruko ikerketa txiki bat egitea Interneten.

**IRTEERA:** hiriguneak hartu behar izanez gero museoa bisitatzeko, eta museoko erakusketetako informazio garrantzitsua idatzi (historia, mitologia)

**ONDOREN:** bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: zerk erakarri nau gehien?; zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; zer espero nuen bisita egin aurretik?; bete dira nire itxaropenak?

Skype bidez hiru kanpusak konektatuko dira, eta klase bakoitzak gainerakoei egindakoa azalduko die.

---

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.



# 3 GIPUZKOAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

---

## 3. Donosti: Igeldo mendia bisitatu.

**AURRETIK:** Igeldo mendiariburuzko informazioa interneten bilatu eta argazkiak ikusi.

**IRTEERA:** Autobusa hartu Donostian Igeldorantz. Funikularra hartu eta mendira igo Donostiako kostaldeko paisaiaz disfrutatuz.

**ONDOREN:** Argazkiak ikaskideekin partekatzea eta argazkiak euskaraz deskribatzen saiatzea, hiztegi berria ikasiz (mendia, hondartza, paisaia...)

## 4. Donosti: Bisita gidatua Donostian

**AURRETIK:** hiru lekuetako monumentu, museo edo lekurik tipikoenak ikertzea gelan, gainerako gelei aurkezteko (adibidez, San Telmo Museoari buruz).

**IRTEERA:** metro/bus/tranbia hartu eta ikasleek aukeratutako monumentu edo lekuetatik ibilbide bat egin eta bakoitzak duen esanahi arkitektoniko, historiko eta kulturala azaldu.

**ONDOREN:** irakaslearen azalpenak, zalantzak eta galderak, informazioa osatzea.

---

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.



# 4 KURTZOAREN PROGRAMAZIOA

Kurtsoaren iraupena: 60 ordu. Klasearen iraupena: 2 ordu. Kredituak: 6 ECTS

Ordutegia: Astearte eta osteguna, 13:30etatik 15:30etara \*

Unitate didaktiko bakoitzean, helburu espezifiko bakoitza lantzeko klase oso bat (2 ordukoa) erabiliko da. Horrela, unitate didaktiko bakoitzak iraupen ezberdina izango du, honen edukien arabera.

Ordu bi horiek bi zatitan banatuko dira. Lehenengo orduan eduki teorikoak aztertuko dira (hiztegia, gramatika, ahoskera...), eta bigarrenean, teoria hori oinarritzat harturik, eduki praktikoak landuko dira eguneroko bizitzako egoeretan hauek nola erabili ikasteko: testuak, entzumenezko ariketak, elkarrizketak etab.

Behin unitateko edukiak ikusita, ondorengo saioan aktibitate gehigarri bat (bideoak, abestiak, albistek, jolasak, lehiaketak...) antolatuko da lehenengo, landutako edukia osatzeko, eta bigarren orduan unitateko irteera prestatuko da.

Irteerak klase normal baten iraupena izango du, honen hurrengo klasean lehenengo ekintzan egindakoa bateratuko da hiru kanpusen artean, eta bukatzeko autoebaluaketa edo ebaluaketa saio bat prestatuko da.

Azterketak bigarren eta laugarren unitateen ondoren egingo dira, eta hauen aurretik klase bat ikasitako gaiak errepatatu, osatu edo finkatzeko erabiliko da, ikasleen beharrezan arabera. Horretaz gain ebaluazio jarrai bat ere egin beharko da, hezkuntza pertsonalizatuago batera abiatzeko.

\* Jaiegun batekin kointziditu duen klaseren bat errekuperatu behar izanez gero, ordutegiak aldakeak jasan ditzakez.

\*\* Kurtzorako ezarritako helburuak ahaztu gabe, irakasle bakoitzak programaketa berrantolatu eta egokituko du bere ikasleen arabera (ikasteko era eta erritmoa, zailtasunak, interesak, beharrezanak...).



# 4.1 KRONOGRAMA

DATA	PROGRAMAZIOA
<b>URTARRILAK 23 - OTSAILAK 15</b>	<b>1. UNITATE DIDAKTIKOA</b>
Urtarrilak 23	Kurtso hasiera + Ongi etorri!
Otsailak 8	1. irteera
<b>OTSAILAK 20 - MARTXOAK 14</b>	<b>2. UNITATE DIDAKTIKOA</b>
Martxoak 12	2. irteera
Martxoak 14	Kurtso erdiko azterketa
<b>MARTXOAK 19 - APIRILAK 18</b>	<b>3. UNITATE DIDAKTIKOA</b>
Martxoak 28	3. irteera
<b>APIRILAK 23 - MAIATZAK 9</b>	<b>4. UNITATE DIDAKTIKOA</b>
Maiatzak 2	4. irteera
Maiatzak 7	Azterketa finala+ Kurtso bukaera

TUTORETZA SAIOAK: Ikasleen zalantzak argitzeko erabiliko dira, eta unitate didaktiko bakoitzaren bukaerako klasean egingo dira (autoebaluazio edo errepaso saioak). Zalantzak hainbat ikaslek partekatzen badituzte, hauek talde handian argituko dira, eta banakakoak badira, klasekideek lanean jarraitzen duten bitartean irakasleagaz argituko dira.

Zalantzak, modu prezentzian ez ezik, online ere planteatu daitezke Edmodo-n, irakasleari edo klase osoari mezu bat bidaliz.

\*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.



## 4.2 METODOLOGIA

---

Testu liburua: Arian A1.1

Ikasleek kurtsoa aprobetxatu eta proposatutako helburuak lortzeko asmoz, gelan metodologia moldagarri bat erabiliko da. Horretarako, klaseko lehenengo egunetik hasita irakasle bakoitzak bere ikasleen testuingurua, interesak, zailtasunak eta beharrianak behatu eta aztertu beharko ditu, horrela programatutako ekintza eta edukiak hauen errealitatera egokitzeko. Hau lortzeko, lehenengo elkar-  
ezagutze saioaz gain, eguneroko behaketa eta kurtso erdiko ebaluazioa eta inkestak ere kontuan hartuko dira.

Klasean bertan, protagonistak ikasleak izan beharko dira irakaslearen ordez, eta hauek ekintzetan ez ezik, kurtsoko erabakietan ere parte hartzea sustatuko da ahal den neurrian.

Ikasketa funtzional eta parte-hartzailea bultzatuko da klaseetan, eta hauek irakaslearen lekzioetan oinarrituta egon ordez, ikasleek aktibitate praktikoak egitera zuzenduta egongo dira, metodologia dinamikoak eta estrategia ezberdinak erabiliz, helburuen, testuinguruaren eta eskuragarri dauden baliabideen (denbora, espazioa, materiala...) arabera, horrela ikasleak motibatuzeko asmoarekin.

---



## 4.2 METODOLOGIA

---

### ANTOLAKETA FISIKOA

Ikasketa autonomoa eta kooperatiboa sustatzeko asmoz, taldekatze moldakorrak erabiliko dira gelan, bakoitza aktibitate mota eta helburu espezifikoetara zuzenduz.

- Bakarka: Idazlanak, berrikusketa ariketak, autoebaluzioak, lan pertsonala, azterketak, entzumen ariketak...
- Bikoteka: Elkarrizketak, ariketen konparaketak, berrikuspenak...
- Talde txikietan: Irteeren prestaketa, skype saioak, jolasak, kooperazio lanak...
- Talde handian: Zuzenketak, eztabaidak, lehiaketak, aurkezpenak...

### DENBORA ANTOLAKETA

Bi orduko saio bakoitza (klasean egingo diranak) bitan banatuko da, ordu bakoitzak betekizun bat izango duelarik. Ordu bakoitzean aktibitate ezberdinak planifikatuko dira, bakoitzari denbora gehiegi eskeini gabe, klase dinamikoak mantenduz.

---

### IKT (INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK)

Gaur eguzo gizartean egunero erabiltzen diren lez, gelan ere teknologia berriak beste edozein baliabide lez integratuko dira, hauek aktibitate ezberdinak egiteko tresna lez erabiliz.

- Edmodo: Ikaskuntzara zuzendutako sare soziala da. Bere egitura eta posibilitateak kontuan harturik, materiala elkarbanatzeko, ikasle eta irakaslearen arteko komunikazioa sustatzeko, klaseen osagarri lez (interneteko loturak elkarbanatuz edo bertako liburutegia erabiliz), etxeko lanak egiteko ("asignación" edo "prueba" bezalako harraminten bidez), zalantzak galdetzeko, tutoretzak antolatzeke etab erabiliko da.
- Skype: Internet bidez deiak egiteko software honek bideo konferentziak eta fitxategi trukaketak ahalbidetzen dituenez, hiru kanpusen arteko ikasleen arteko esperientziak elkarbanatzeko erabiliko da (irteeren ondoren).
- Kahoot/Socrative: Lehiketa formatuko jolasak ahalbidetzen dituzten aplikazioak dira, ebaluaketa txikiak edo errepassoak egiteko oso erabilgarriak.
- Beste batzuk: bideoak, emaila, drive, web-orriak...



# 5 EBALUAZIOA

.....  
Ikasleen ebaluazioa integrala eta hezigarria izateko asmoz, honek aspektu ezberdinak izango ditu kontuan.

Lehenengo eta behin, ebaluazio saio ezberdinak planifikatu dira unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran, ikasleek hasieratik beraien aurrerapena ikusteko eta dituzten zailtasun eta beharrianak identifikatu eta hobetzen laguntzako.


Horietatik bi azterketak izango dira, bat bigarren unitate didaktikoaren ondoren (kurtso erdiko azterketa) eta beste bat bukaeran, ikasitako guztia bateratuko duena (azterketa finala). Saio hauetan, helburuetan ezarri diren bost arloak aztertuko dira, lau ariketetan banaturik: Irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamina (elkarrizketa eta ahozko adierazpena neurtzeko). Deialdi bakarra egongo da (azterketa finala).

Bestalde, lehenengo eta hirugarren unitateen ondoren autoebaluazio orduak planifikatu dira, ikasleek beraien ze egoeratan dauden aztertu dezaten, helburuak, hobetze-neurriak eta beharrianak ezarriz. Autoebaluazio hauek testu-liburuak gai bakoitzaren bukaeran dituen galderetan oinarrituko dira.

Horretaz gain, eta ebaluazioa benetan integrala izan dadin, emaitza soilez gain klaseko eta etxeko eguneroko lana, parte-hartzea eta motibazioa gainbegiratuko dira, besteak beste.

Hau guztia txosten batean adieraziko da kurtso bukaeran.

.....





# 5.1 EBALUAZIO IRIZPIDEAK

	%	Puntu irizpideak	Ebaluazio tresna
<b>EBALUAZIO JARRAIA</b>			
Lan pertsonala	%25	Etixerako bialdutako ariketak egitea = 1.5 puntu Etxean egiteko idazlanak = puntu 1 (Unitate didaktiko bakoitzeko idazlan bat, bakoitzak 0.25 puntu)	Eguneroko behaketa Ariketak Edmodo (“asignación” tresna)
Jarrera Parte-hartzea	%25	Taldeko lanetan aktiboki parte-hartzea = 0.5 puntu Ahozko jardueretan parte-hartzea = 0.5 puntu Irteeretako ekintzetan parte-hartzea = 0.5 puntu Klasean jarrera positiboa erakustea = 0.5 puntu Ikasteko motibazioa erakustea = 0.5 puntu (galderak egin, ikasgelatik kanpo lan egin, Edmodo plataforman parte-hartu, ikaskideak lagundu...)	Eguneroko behaketa Edmodo Asistentzia orriak
<b>AZTERKETAK</b>			
Kurtso erdiko azterketa Martxoak 14	%20	Azterketa bakoitzak helburu orokorretan azaltzen diren bost arloak ebaluatuko ditu, lau ariketa erabilita. Azterketa bakoitzeko nota, berez, 10ekoa izango da gehienez, hurrengo ataletan banatuta:	Azterketa (1)
Azterketa finala Maiatzak 7	%30	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakurmena: 2.5 puntu</li> <li>2. Entzumena: 2.5 puntu</li> <li>3. Idazmena: 2.5 puntu</li> <li>4. Hitz egitea: 2.5 puntu (elkarrizketa eta adierazpena)</li> </ol> <p>Azterketek ebaluazioan duten pisua kontuan harturik: Kurtso erdiko azterketa = 2 puntu gehienez (10eko nota = 2 puntu, 5eko nota = puntu 1, etab.) Azterketa finala = 3 puntu (10eko nota = 3 puntu, 5eko nota = 1.5 puntu, etab.)</p>	Azterketa (2)

**\* Ebaluazioa eta kalifikazioa:**

• **Eskolen % 85era joandako ikasleak:**

Ebaluazioa etengabea eta batutzaila izango da. Programetan zehaztutako atal guztiak baloratuko dira. Beharrezkoa izango da ikastaroa gainditzeko azterketetan ebaluatutako alderdi, zeregin, atal eta gaitasun guztiak gainditzea.

• **Eskolen % 85era joan ez diren ikasleak:**

Kalifikazioa, ikastaroan emandako eduki guztien azken azterketa eginez lortuko da. Ikastaroa gainditzeko, beharrezkoa izango da azterketaren atal guztietara aurkeztea eta bertan ebaluatzen diren atal eta gaitasun bakoitza gainditzea.

**\* Garrantzitsua da ikasleek kontuan hartzea ikastaro hauetan ez dagoela azterketen bigarren deialdea**

# 6 BIBLIOGRAFIA

---

TESTU LIBURUAK:

Erreferentzia liburua:

- Arian A1.1

Ikaslearen liburua

Entzungaiak (CD)

Erantzunak eta transkripzioak

Liburu osagarria:

- Bakarka 1



# 6 BIBLIOGRAFIA

---

## MATERIAL OSAGARRIA

### Egunkariak eta aldizkariak:

- Berria
- HABE
- Argia
- Aizu
- Eta Kitto
- Elhuyar
- Zabalik
- Nabarra
- Osatuz
- Eskualde ezberdinetako publikazioak (aldizkariak, egunkariak...)

### Mediateka:

- ETB1eko albisteetako grabazioak.
- ETB1eko dokumentalen grabazioak.
- Euskarazko filmeak.

### Helbide elektroniko interesgarriak:

#### • Ikastaroak eta ariketak:

[www.internet/euskadi.org/euskara/ega](http://www.internet/euskadi.org/euskara/ega)

[www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ega/index.htm](http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ega/index.htm)

[www.ehu.es/azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)

[www.ehu.es/PAT](http://www.ehu.es/PAT)

[www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net)

[www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

[www.euskaljakintza.com](http://www.euskaljakintza.com)

[www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com)

[www.hiru.com/](http://www.hiru.com/)

[www.ikasten.net](http://www.ikasten.net)

#### • Irakurtzekoak:

[www.habe.org](http://www.habe.org)

[www.berria.info](http://www.berria.info)

[www.aizunet.net](http://www.aizunet.net)

[www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)

#### • Entzutekoak:

[www.habe.org](http://www.habe.org)

[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)

[www.eitb.com](http://www.eitb.com)

#### • Bilatzaileak:

\* AURKI

\* KAIXO

\* JALGI

\* Aurkitu

\* Google